

**Begi marroiduna**
**lehun**
**bailera dihoa**
**ti ru ri ra ri re ...**
**ti ru ri ra ri re ...**
**... eta han norbait zai dauka.**

**... Begi marroidun neska**
**itzultzen da**
**kale hutsetik**
**lore bat ilean**
**eta bihotza apurtua ... pank ! ...**

Bateria: Angel Celada. Double-bass: Gonzalo Tejada. Ahotsa, piano, kawai vibraphone: Juan Carlos Perez. Haizeak, Tronpeta: Jacky Berecoetchea, Soprano eta Tenor Saxoak: Andrzej Olejniczak, Alto saxoa: Javi Alzola . Sokak, Biolina: Arkadiusz Ceyzewski, Biolina: Miroslaw Hodor, Biola: Iwona Skreypzak, Celloa: Jurek Andreejczeak. Koroak: Maixa Lizarribar, Itziar Oreja, Garbiñe Sagastibeltza.

# BEGI MARROIDUNA

# BIHOTZ APURTUA

Bere tristezia erratzen uzten du
polen landa belar eta sasi artean.
Bere tristrezia blaitzen uzten du
egunsentiko euri morean.

`ta orain ahaztu beharra dago
tren harro horren ...
`ta orain ahaztu beharra dago
tren harro horren ...
oie heie heie tren horren ziztuak...
... ahaztu behar ...

Egan egiten du, lehun, bailaretatik
txikitan bezela.
Amets horri eutsi
haizeak dakartzan berrien zai dagoen bitartean.

Begi marroiduna, takoi gorriekin,
bailera dihoa, lehun, bailera dihoa
tu ru tu tu tu tu tu tu ru
tu ru tu tu tu tu tu tu ru

`ta orain ahaztu beharra dago...

Esan bihotz apurtuek
alkoholik edan gabe
hitzegin ahal dute larunbat gauetan...
Esan non eraikitzen duten
samin urdinaren kabia
bihotz apurtuek.
Esan nerea baino
bihotz apurtu gehiago al dauden ...
al dauden ... al dagoen.

Bateria: Angel Celada. Bass: Mikel Artieda. Ahotsa, piano, kawai vibraphone, synth.: Juan Carlos Perez. Haizeak, Fliskorno,Tronpeta: Jacky Berecoetchea, Soprano eta Tenor Saxoak: Andrzej Olejniczak, Alto saxoa : Javi Alzola. Sokak, Biolina : Arkadiusz Ceyzewski , Biolina : Miroslaw Hodor, Biola: Iwona Skreypzak, Celloa: Jurek Andreejczeak. Koroak: Maixa Lizarribar, Itziar Oreja, Garbiñe Sagastibeltza.



Bateria: Angel Celada. Double-bass: Gonzalo Tejada. Ahotsa, pianoa: Juan Carlos Perez;. Haizeak, Soprano saxoa: Andrzej Olejniczak, Alto saxoa: Javi Alzola. Sokak, Biolina: Arkadiusz Ceyzewski, Biolina: Miroslaw Hodor, Biola: Iwona Skreypzak, Celloa: Jurek Andreejczeak.

# RIAREN BLUESA

**"Atlantic River"**
**Aveirotik datorrena**
**bauxitarekin ... riaren barrena**
**azkena izango balitz**
**erriberako jendeari galdetuko lioke**
**nabaritzen al da oraindik**
**ostirala**
**langileek besopean**
**daramatzaten trajebuzuetan ... ?**
**daramatzaten trajebuzuetan ... ?**
**Azkena izango balitz**
**erriberako jendeari galdetuko lioke**
**zeinek ito erazten ditu**
**Labe Haundietako antxinako kantuak ...?**
**antxinako kantuak ... ito ...**

**"Puppy P." fuel-oilekin**
**Lisboatik datorrenarekin ...**
**udaberria heldu da**
**kanaletako molleetara**
**eta eguzkia hartzen duten**
**emakumeengan**
**loretu da ...**

**"Susanne" gasoilarekin**
**aginduen zai ...**
**"Crimea" burdinarekin**
**aginduen zai ...**
**"Angol" Iquiquerantz dihoana**
**itxaropena eta balorea darama ...**
**eta balorea ...**
**eta balorea ...**

Gaua gustatzen zait neri
ondo dakite bai
gaueko garbitzaileek
Atzo gauean bertan haiek
ikusi gintuzten
kantatzen Zubi Berrian...
Zubi Berrian... Berrian
Zubi Berrian...

Goardiako Botika batean
erosi nuen behin
konpromezuko erhaztuna.
Halako gauzak egiten dira gauaz
...gauaz maite zaitut eta gehien ...
eta gehien ... eta gehien ... eta gehien ...

... Eta gauero irtetzen naiz ni ...

... Eta gauero irtetzen naiz ni ...
kale busti berrietan
nere burua egan sentitzen dut
... Eta gauero irtetzen naiz ni ...
kale busti berrietan
... Eta gauero irtetzen naiz ni ...
kale busti berrietan
nere burua egan sentitzen dut
kanpaitxilen artean
ikusten zaitut etortzen...

Gaua gustatzen zait neri
ondo dakite bai
gaueko garbitzaileek.

Bateria: Jimmy Arrabit. Stick-bass: Eduardo Basterra. Ahotsa, Kawai vibraphone, synth.: Juan Carlos Perez. Haizeak, Klarinetea: Andrzej Olejniczak, Alto saxoa: Javi Alzola, Tronpeta: Jacky Berecoetchea. Koroak: Maixa Lizarribar, Itziar Oreja, Garbiñe Sagastibeltza.

# GAUERO

# ETRE

Bere burua erruki duen
gauza basatirik
ez dut behin ere ikusi, behin ere ikusi...
Txori txiki bat
hotzak hilda eroriko da adarretik
bere buruaren errukirik
behin ere sentitu barik, sentitu gabe...

Badakit denbora
itzuli egiten dela
baina neretzat
itzuliko ez naizenez...
bakarra da egun hau.
Txori txiki bat
hotzak hilda eroriko da adarretik
bere buruaren errukirik
behin ere sentitu barik, sentitu gabe..

Bere burua erruki duen
gauza basatirik
ez dut behin ere... behin ere ikusi.

Bateria: Jimmy Arrabit. Double-bass: Gonzalo Tejada. Ahotsa, pianoa, kawai vibraphone: Juan Carlos Perez. Sokak, Biolina: Arkadiusz Ceyzewski, Biolina: Miroslaw Hodor, Biola: Iwona Skreypzak, Celloa: Jurek Andreejczeak.



# OI ENE MAITE

Bada etxe bat hondartzaren bukaeran
gauero itxaropena hurbiltzen dena
K-k burua mugitu
eta "justizia" aldarrikatzen du
eta bazterrean norbaitek
merenguea tzi tza tzi tza...
... gogoratzen.

Bada etxe bat hondartzaren bukaeran
eta gauero aingeruen koru bat:
" maite zaitut ... maite haunat"
eta E. J.-k ordaindu eta negar
egin zuen lehendanbizikoan...

Maite zaitut... maite haut
maite... oie hai ene maite...

Bada etxe bat hondartzaren
bukaeran portu ondoren...
eta han gauero kantu bat:
" Ez nazazu hainbeste maite
esan nizun ordua madarikatzen dut"...
... eta kantu bat baino areago oraindik
zure barruan zerbait lehertzen bada.
Bada etxe bat hondartzaren bukaeran
eta marinel batek

Amsterdam-en ibilitakoa
tranbia horien 4 garrengo lineari
buruz hitzegiten du...
beldarrak bezain estu eta luzeak...
... eta putak... putak...
Amsterdameko putak...
kristal atzean dozen putak...

Maite zaitut...maite haut
maite...oie hai ene maite...

Geltokian jubilatu batek esan zidan:
gaur goizean irratiak esan du
urtarrilan, artzaiak
hobe otsoak ikustea
tximeletak baino...
tximeletak baino...

Bada etxe bat hondartzaren bukaeran
eta egunsentiko eguzkiak
itsasoa urdintzen du
eta E. J. -k ez du gehiago amodioengatik
negar egin...
... eta azkeneko ginebrari eusten dio.

Bateria: Jimmy Arrabit. Fender Jazz-Bass: Eduardo Basterra.
Ahotsa, piano, synth: Juan Carlos Perez.
Koroak: Maixa Lizarribar, Itziar Oreja, Garbiñe Sagastibeltza.



# KANTU EROA

Kalatxoriekin bidali zion
kantu ero bat
barrualdeko bere maiteari...

eta euri ondorengo baso usainaz
erantzun zion harek...
`ta iraun `ta iraun `ta iraun zeiken
`ta iraun zeiken...
`ta iraun zeiken euri ondorengo baso usain hura...

Eta geroxeago... udazkena aldean
hego haizeaz
erantzun zion harek
"... hego haizeak mundua mugitzeik...
motel..."

Eta egon ezina sartu zen kale barrena
ateak eta leihoak joka...
eta egon ezina sartu zen kale barrena
kantu ero berri baten eske.

`ta iraun `ta iraun...
Eta geroxeago... udazkena aldean...

Kalatxoriekin bidali zion
kantu ero bat
barrualdeko bere maiteari... behin
eta elur urtzearekin
hibai estrapozo, kristala eta garbi bateaz
erantzun zion

`ta iraun `ta iraun
Eta geroxeago... udazkena aldean...

Bateria: Jimmy Arrabit. Bass: Mikel Artieda. Ahotsa, kitarrak, Kawai vibraphonea: Juan Carlos Perez. Sokak, Biolina: Arkadiusz Ceyzewski , Biolina : Miroslaw Hodor , Biola: Iwona Skreypzak, Celloa: Jurek Andreejczeak. Koroak: Maixa Lizarribar, Itziar Oreja, Garbiñe Sagastibeltza.

# ILUNTZEAR DIHOANEAN

Iluntzear dihoanean
Cabo Matxitxakok
keinuak egiten dizkio Mendebalde gorriari ...
Mendebaldeari ...

Ekialdeko horitasunaz ohartzeke
bere kaosaz
bere hiri eta zelaietako
iluntzeaz
bere Liburu Santuetan idatzitako
pakeaz
... ohartu egin gabe ere ...
... ohartu egin gabe ere ...

... eguzkiak , egunero , izpi batzuk
gordetzen bait ditu
Bir Bou Rekba estazioko
adreilu zurietan.

Aizak ! ... esaidak munduarekiko
nere historio hau
atsegina al dukan ...
" ez zik esan polita ez dela
Eganazpi kantatzen
Sakabiren " Larrinaga- Guerrini " arekin
eta gero atseden bat hartzen
duenean ".

Bateria: Angel Celada. Bass: Mikel Artieda. Ahotsa, kitarrak ,Hammond organoa: Juan Carlos Perez. Sokak, Biolina: Arkadiusz Ceyzewski, Biolina: Miroslaw Hodor, Biola: Iwona Skreypzak, Celloa: Jurek Andreejczeak. Koroak: Maixa Lizarribar, Itziar Oreja, Garbiñe Sagastibeltza.

# URREAREN BILA

Ilunkera gorrizta bat hiri eremu hartan
John, Danel, Micky, Loren eta ni
- urre, urre, urrearen bila -
kamioiaren atzekaldian eserita.
Eta hartan beisbol zelai bat
Pabeloi herdoilduen artean
jende bat han zen guri begira
gutariko batek esan zuenean.

Zertarako egon hemen, zertarako
hondamendiaren hiri nagusian,
zertarako egon hemen, zertarako
urre biltzaile itsutuen gisan.

Zerua, lurra, gaua, arratsa,
ezer ez dira, ezer, urre biltzailearentzat, ezer
- urre, urre, urrearen bila -
galbahetik joan da guzti guztia.

Oroimena ez da erretrato bat besterik,
iraganik ez urre biltzailearentzat
- urre, urre, urrearen bila -
lagunak gau bateko gauza bat.
Desioa, desioa da
obsesio ase ezinezkoa.
Etorkizunean bizi nahi
oraina ahazteko gogoz.

Zertarako egon hemen, zertarako...

Poz batean ginen eguna lanean emanda
John, Danel, Micky, Loren eta ni
- urre, urre, urrearen bila -
aurretik beste hainbestetan bezala.

Joan da eguna, hutsik joan da
hala ere gu kamioiaren atzekaldean pozik
- urre, urre, urrearen bila -
alperrik edo urrearen atzetik goaz.
Micky, Loren. lagunak
esaidazue zer uste duzuen
alperrik al da urrearen
atzetik ibili behar hau?

Zertarako egon hemen, zertarako...



Bateria: Angel Celada. Double-bass: Gonzalo Tejada. Ahotsa, pianoa: Juan Carlos Perez. Haizeak, Tronpeta: Jacky Berecoetchea, Tenor Saxoa: Andrzej Olejniczak, Alto saxoa: Javi Alzola Sokak, Biolina: Arkadiusz Ceyzewski, Biolina: Miroslaw Hodor, Biola: Iwona Skreypzak, Celloa: Jurek Andreejczeak. Koroak: Maixa Lizarribar, Itziar Oreja, Garbiñe Sagastibeltza.